

Lautada bertsoan

AURKIBIDEA

GELAZ GELAKO BERTSOAK

- 3. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.A
- 4. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.B
- 5. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 6.A
- 6. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 6.B
- 7. orrialdea.....Lautada ikastola– Agurain - 5.
- 8. orrialdea.....Lautada ikastola– Agurain - 6.
- 9. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 5. A
- 10. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 5. B
- 11. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 6. A
- 12. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 6. B
- 13.orrialdea.....Araia Eskola – Asparrena – 5. maila
- 14. orrialdea.....Araia Eskola – Asparrena – 6. maila

KONKTAKTUAK

- 15. orrialdea..... Kontaktuak



Lope de Larrea ikastola - Agurain 5. A

ASMAKIZUNAK

Belarri handia ta
buztan luzatua
lagun asko baditu
hori da kontua
bera bizi den lekua
ere magikoa
pantailan agertzen den
sagu famatua

Gorri kolorekoa
ta oso ezaguna
gustuko dugu eta
pozten gaituena
eta guk badaukagu
jateko onena
sukaldatau gabe guk
jan dezakeguna

Zu joaten bazara
ai zelako pena
lope de larrean zu
zara jatorrena
baina baita ere bai
zara maltzurrena
guretzako zu zara
irakasle onena

Horra gora igotzeko
daukat nik gogoa
dauden guztietatik
hori gustukoa
han goian beti dago
janari goxoa
handik ikus daiteke
Frantzia osoa

Horrekin badakigu
noiz lan eta noiz jai
orduro begiratzen
egoten naiz alai
gaua eta eguna
desberdintzeko gai
zenbakiak baditu
orratzak ere bai

Hantxe egoten gara
euri zein eguzki
hiru izarrekoa
pentsio ta guzti
jolasteko, ikasteko
balio du noski
batzuetan gustura
bestetan gaizki



Lope de Larrea ikastola - Agurain
5. B

ASMAKIZUNAK

Batzutan da gozoa
Garratza azkenean
Esango dizut gero
Nik nire etxean
Asko hartzen badugu
Beteta barnean
Triste ipintzen gara
Ez daukagunean

Klasean ez badago
Zelako apuru
Soinua ematea
Da bere helburu
Bertso saiotan dago
Hori bai seguru
Hobeto entzuteko
Hori behar dugu

Koloretakoa da
Ta laukizuzena
Institutu garaian
Beti handiena
Paperak beretzako
Lagun dituen
Beraiek gordetzeko
Lagunik onena

Bilatu ta bilatu
Ezin da aurkitu
Baina agertzen bada
Ikusten gelditu
Korrikako kolore
Antzekoak ditu
Ikusi dezakezu
Baina ez ukitu

Ez badugu ikusten
Dago gure atzean
Beti agertzen dena
Lagunen artean
Eta beti daukagu
Gure barrenean
Kanpora irteten da
Pozik gaudenean



Lope de Larrea ikastola - Agurain

6. A

*Oporrak bertan dira
Piztina ta jaia
Hauxe bai izango da
Kantatzeko gaia
Horregatik daukagu
Aurpegi alaia
Azkenik iritsi da
Joateko garaia*

Azken urtea iritsi zaigu
Agur polita egin behar
Denbora asko goaz gu eta
Hasi zaigu guri bizar
Denbora gutxi falta zaigu ta
Egunak bost edo hamar
Ondo pasatu dugu elkarrekin
Seigarren maila hontan zehar

Lope Larrea ikastolatik
Egin nahi dugu guk ihes
Aniturrira joango gara
Iraila honetan gu nekez
Koaderno batzuk eta liburu
Eskatzen dugu mesedez
Aniturrira joango gara
Pozez ta alaitasunez

Hementxe egon gara benetan
Hamar ikasturteetan
Agur Joseba, kaixo Aniturri
Esan behar dugu klasetan
Ondo pasatu beharko dugu
hurrengo egunetan bertan
Pena asko ta poza ere bai
Ematen digu benetan

Urte honetan seigarren mailan
Josebarekin ze lana
Joseba utzi eta bagoaz
Bakoitzaren amagana
Lagun maitea ikusi arte
Bakoitzari muxu bana
Urruti joan ta ez bueltatzea
Izango da gure plana



Lope de Larrea ikastola - Agurain

6. B

DOINUA: Guretzat berdin dira

*Oporrak bertan dira
Piztina ta jaia
Hauxe bai izango da
Kantatzeko gaia
Horregatik daukagu
Aurpegi alaia
Azkenik iritsi da
Joateko garaia*

Azken urtea, biziraun dugu
Nahiz eta eman kolpeak
Joateko txanda bai iritsi da
Itxi behar dira atea
Gu ia bagoaz, zuek gelditu
Aguantatu irakasleak
Agur lagunak, ondo pasatu
Geratzen diren urteak

Inma oso irakasle ona
Izan zara betidanik
Eskerrik asko Kiosko hainbeste
Pazientzia izateagatik
Jon agurtuko dugu guztiok
Buruan kresta izanik
Eta Nerea ahaztu gabe
Joango gara hemendik

Bi ordu patio nahi ditugu guk
Ez dugu nahi azterketa
Honaino iristea izan da
Guk gaintitu dugun meta
Lehenengo urtea patio garaian
Emango digute buelta
Presta zaitetzte irakasleak
Aniturrira goaz eta!

Urte honetan ez dugu izan
Guretzako opor nahiko
Azterketekin eta lanekin
Oso onak garelako
Bikinia eta txanketa batzuk
Motxilan sartu beharko
Oporretara joango gara
Agur agur betirako



Lautada ikastola - Agurain
5. maila

HIRU TXERRITXOAK

Baziren hiru txerri
Bizitzen gustura
Mendian jolasean
Pasatzen denbora
Txerritxoek ez zuten
Etxean ganora
Amak bota zituen
Etxetik kanpora

Lehenengo txerritxoak
Egin lastozkoa
Ta bigarrena berriz
zen egurrezkoa
Hirugarren etxea
Zen adreiluzkoa
Bakoitzak egin zuen
Bere etxetxoa

Otsoa etorri zen
Txerria jatera
Gose handiarekin
Zetorren gainera
Otsoak esan zuen
Botako dut behera
Putz eta putz egiten
Etxea lurrera

Anaiaren etxera
joan zen txikiena
Egurrezko etxea
Polita zuena
Otsoa etorri zen
Ze nolako pena
Putz eta putz eginez
Bota zuen dena

Bi txerritxoak joan ziren
Korrika saltoka
Anaiaren etxera
Otsoaren kontra
Txerriak etxean sartu
Ja ezer inporta
Otsoak putz eginez
Baina ezin bota

Ipuin hau ere bada
Gauza bat polita
Adreiluzko etxean
Gustuko musika
Tximiniatik behera
Lapikoa jarrita
Ipurdia erreta
Joan zen korrika



Lautada ikastola - Agurain
6. maila

INDUSTRIALIZAZIOA

Paleolitoa bukatu eta
Hori ez zen izan pena
Neolitoa hasi zen eta
Hori izan zen onena
Nekazaritza izan zen lehena
Abeltzaintza bigarrena
Gure antzerkiak kontatuko du
Iraultzarik handiena

Gure arropa beti izan da
Zaharra oso ez berria
Gosea dugu ta jan nahi dugu
Lanean dena larria
Gure mendiak urruti daude
Bizitza negargarria
Bilbora goaz, lanaren bila
Agur gure baserria

Industria sortu zen bat-batean
Duela bi mende hemen
Hamabi ordu gelditu gabe
Fabrikan lana egiten
Umeak etxean negar egiten
Gurasoekin pentsatzen
Ama ta aitak lanera doaz
Umeak lana bilatzen

Industri iraultzan langileria
Ez zegoen oso lasai
Ugazabaren menpean zeuden
Jateko bonoaren zain
Haiek nahi zuten, astean behintzat
Egun bi izatea jai
Grebak egiten zituzten eta
Manifa asko ere bai



Dulantzi Eskola - Dulantzi
5. A

PINOTXOREN IPUINA

Gepetok egin zuen
Panpin bat kantari
Berak nahi zuen hori
Beretzat opari
Laguntza eskatu zion
Maitagarriari
Bizitza eman zion
Panpin politari


Pinotxo ikastolara
Joan zen gustura
Baina denek eskolan
Egin zuten froga
Azeria ta katua
Pasatu denbora
Engainatuta doa
Haiekin zirkora

Azeria gaiztoa ta
Katua lapurra
Horrexegatik zuen
Pinotxok beldurra
Esaten zuenean
Pinotxok gezurra
Luzatzen ta luzatzen
Zitzaion sudurra

Gero aurkitu zuen
Ume bihurriak
Dibertsio lurraldera
Ze zoragarriak
Baina egun batean
Akabo irriak
Atera zitzaizkion
Asto belarriak

Gepeto gauean hor
Ari zen lanean
Ta pinotxoren bila
Txalupa batean
Pinotxo eta Pepito
Teilatu gainean
Ta baleak irentsi
Zuen bapatean

Gepeto arraunean
Pinotxorentzako
Bere semea asko
Maite zuelako
Atera zirenean
Denentzat poz asko
Zoriontsu izan ziren
Bizi guztirako



Dulantzi Eskola - Dulantzi
5. B

ARTZAIN GEZURTIA

Bazen behin artzaintxo bat
Dulantzin herrian
Txikiak joaten ziren
Mendira erdian
Jaten zuen txistorra
Ardoa agian
Artzaina aspertuta
Zegoen mendian

Ardiak txintxo-txintxo
Guztiak batera
Ta bere buruari
Ein zion galdera
Ta bromatxo batekin
Jaisten naiz behera
Otsoa datorrela
Ardiak jatara

Artzaina aspertuta
Egia aldrebes
Eta gero egia
Gezuraren orde
Jendea laguntzera
Harriz ta makilez
Jendea laguntzera
Baina otsorik ez

Gure artzainak zuen
Bere esperantza
Mendian egin zuen
Barre eta dantza
Berriz gezurra zela
Jendeak zalantza
Haserre joan ziren
Berriz herrirantz

Gezurta esanez
Denok joan gara
Beraz gugatik joan
Zaitetz pikutara
Denok haserre gaude
Etxera behar bada
Ez dizugu sinesten
gezurtia zara

Otsoa etorri zen
Mendian elurra
Ardiak ikustean
Nolako beldurra
Ardiak jan zituen
Ikusten hezurra
Ez zuela esango
Berrito gezurra



Dulantzi Eskola - Dulantzi
6. A

GARTXUREN PAJARITA—1. zatia

Ba omen zen behin txakur handi bat
Gartsu izena zuena
Bere pajarita galdu zuen
Eta eman zion pena

Gure gelara etorri zen ta
Ahotsa zuen bai grabe
Esan zuen ni ezin naiz bizi
Nire pajarita gabe

Kaixo seigarren maila
Ze maila polita
Triste natorkizue
Erabat etsita
Zuei galdetzekotan
Nator ni korrika
Ikusi al duzue
Nire pajarita

Kaixo gure txakurtxo
Zatoz zu kantari
Tristura aurpegian
Zaizula nabari
Ez dakigu non dagon
Pajarita hori
Galdetu badaezpada
zuzendariari

.....

Ai txakurtxo txakurtxo
Ez ez nik ez dakit
Olentzerok agian
Ikusi du hortik

Ta gure Gartsu mendira joan zen
Laster batean korrika
Pentsatu zuen egingo ziola
Olentzerori bisita
Mendiko etxolan ikusi zuen
Eta atera irekita
Aizu Olentzero esan zaidazu
Non dagoen pajarita

Pajarita nik neuk hartu nizun
Misio bat betetzeko
Ume guztiek gaztelaniaz
Hitz egiten dutelako
Euskaraz egin behar dute beti
Zeren hori dut gustuko
Eta zuk hori lortu ezean
Nik ez dizut bueltatuko



Dulantzi Eskola - Dulantzi
6. B

GARTXUREN PAJARITA—2. zatia

Olentzerok du pajarita hori
Ta nola berreskuratu
Kezkatuta dago gure Gartsu
Nahi duelako topatu

Ume guztiek ere nahi dute
Pajarita aurkitzea
baina ez da hain gauza erraza
euskaraz hitz egitea

Eguna joan zen eta
Gaua zen iluna
Olentzerok orduan
"Animo laguna!
Pajarita aurkitzeko
Estutu garuna
Euskal mitologian
Dago erantzuna"

.....

Gartsu badoa, kobazulora
Eta sartzen da barnera
GARTSU:

"zure laguntza behar dut eta
Berreskuratzeko euskera"

MARI:

Zuen barruan dago erantzuna
Aprobetxatu aukera
Bertso magiko zoragarri bat
Kanta dezagun batera

"Bat, bi, hiru, lau, lau, hiru, bi, bat
Erratza gainean hegaz
Gure bihotzetik hitzak atera
Ditzagun guztiok erraz
Hitz magikoak esan ditzagun
Zirristi mirrizti beraz
Kanta dezagun, goza dezagun,
BIZI GAITEZEN EUSKARAZI!!!"



Araia Herri Eskola - Asparrena
5. maila

ARTZAIN GEZURTIA

Bazen behin artzaintxo bat
Beti gosalduta
Bisitatzen zuena
Aizkorriko punta
Artzaina mendian dago
Gutziz aspertuta
Hainbeste denbora hor
Bakar bakartuta


Eramaten zuela
Gazta ta txapela
Denbora pasatzen zuen
Dordokak bezela
Artzainak pentsatu zuen
Txantxa bat itzela
Herritarrei esanez
Otsoa datorrela

Gure Artzain maitia
Oihuka hasita
Herriko guztiei
Esan zien eta
Otsoa hemen dago
Etorri lasterka
Mendira igo ondoren
Artzaina barrezka

Artzaina aspertuta
Bera ta txakurra
Zegoen eserita
Ahoan hezurra
Berriz ere pentsatzen
Gure artzain maltzurra
Artzainak esan zien
Berriro gezurra

Artzaina aspertuta
Zegoen luzaro
Ta herriko pertsonak
Ez dira igaro
Artzaina txundituta
Hau bai da arraro
Ez dizugu sinesten
Otsorik ez dago

Otsoa etorri zen
Bere luze hatzapar
Ardiak jan zituen
eta artzainak negar
artzainak ikasi dut
ipuinean zehar
gezurrak ez direla
inoiz esan behar



Araia Herri Eskola - Asparrena
6. maila

KORRIKA BADATOR

Doinua: guretzat berdin dira

*Euskarari eskainiz
Festa bat polita
Bihar goizean dugu
zortzietan zita
Pozik joango gara
Petoa jantzita
Denok batera
egin dezagun korrika*

Aupa Araiaiko korrika txiki
Segi zuek bai aurrera
nobio berri bat daukagu orain
esan agur gaztelera
hizkuntza hori galdu ez dadin
oso polita da euskera
korrika egin, ondo pasa ta
denok euskara ikastera

Euskarari eskainiz...

Gure hizkuntza, bultzatu nahian
Korrika goaz gustora
Udaberrian koloretsua
Petoa janztea da moda
Zabaldu euskara gure eskolan
Eta eskolatik kanpora
Gaurkoan Araian ta bihar berriz
Urepeletik Bilbora

Euskarari eskainiz...

Euskara gutxi erabiltzen da
Izan gara gu errudun
Korrika eginez, pilak kargatu
Hizkuntza indartu dezagun
Super botere handi bat dugu
Euskara da gure lagun
Denok batera eskuak gora!!!
GU BAI GARA EUSKAHALDUN!!!

Euskarari eskainiz

Inguruko bertso-eskolak
2014-2015 ikasturtea

LAUTADAKO BERTSO-ESKOLA
(Agurain eta Zalduondo)
Arramel kalea z/g
01200 AGURAIN

Arduradunak: Oier Arbina (Agurain) eta Oier Suarez (Zalduondo)
Tel: 945010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.eus
www.blogak.com/laube



AMAIA ZENTROA
Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
Mug: 688695875 - 688616531
e-posta: araba@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus/araba

